

Newsletter


Atal honetan, Euskadiko Turismo Behatokiaren newsletter-ak ikus ditzakegu, baita horiek guztiak biltzen dituen historikoa ere.

18. Newsletterra Uztaila 2025

Enfokatur Euskadiko Behatoki Turistikoak Euskadiko eskaintza eta eskari turistikoari buruzko koiuntura-adierazle nagusien azterketa laburra egin du: **2025. urteko metatua, eta 2025eko apirila eta maiatzekoa**, baita araututako **turismo-ostatu guztiei buruzkoak ere**.

** Oharra: 2025eko apirileko datuak irakurtzeko, kontuan izan behar da 2025ean Aste Santua apirilean izan dela, eta 2024an, berriz, martxoan izan zen.*

2025EKO URTARRILA-MAIATZA METATUA



PLAZAKAKO OKUPAZIO-MAILA

(%) * (VS. 2024)

%33,80

%34,40

ESKEINITAKO PLAZAK EGUNEKO

56.333

(+ %5)

Hotelak	%4,3	📈	Vitoria-Gasteiz	%1,2	📈
Nekazalurtismoa	%2,1	📉	Bilbao	%8,5	📈
Kanpinak	%6,9	📈	Donostia	%1,7	📈
Apartamentu turistikoak	%15,7	📈	Euskal Kostaldea	%0,3	📈
Aterpebe turistikoak	%1	📈	Mendi eta haranak	%3,2	📈
			Arabako Errioxa	%2,5	📈

2025 urteak **emaitza positiboak metatu ditu** adierazle nagusietan, 2024ko urte bereko epe berarekin alderatuta: **+%5 (56.333) plaza-eskaintza egunekeo, +%4,5 (1.761.065) turisten sarreretan, +%4,8 (3.515.795) gaualdietan eta +%1,8 (34,40) plazen okupazio-mailan**.

Ostatu-tipologiei dagokienez, **kanpinak bakarrik jaitsi dira eskaintza eta eskari adierazle guztietan**, eta gainerako ostatu-motek emaitza positiboak izan dituzte.

2025ean zehar, **helmuga guztietan egunekeo plazen-eskaintza igo da. Donostiak eskari-adierazle guztietan jaitsiera** izan du. **Euskal Kostaldeak sarrera eta gaualdi kopuruan behera egin du, eta Vitoria-Gasteizek sarreretan jaitsierak erregistratu ditu**.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2025EKO URTARRILA-MAIATZA METATUA

10 MERKATU IGORLE NAGUSIAK


JATORRIAK	SARRERAK 2025 vs 2024	GAUALDIAK. 2025 vs 2024
Madrilgo Erk.	%5,6 📈	%6,6 📈
Euskadi	%5,3 📈	%6 📈
Frantzia	%4 📉	%4,1 📉
Katalunia	%3,5 📉	%0,4 📉
Erresuma Batua	%38 📈	%30,9 📈
Gaztela eta Leon	%2,3 📈	%0,7 📈
Alemania	%7,5 📈	%12,5 📈
Estatu Batuak	%5,4 📈	%7,6 📈
Andaluzia	%3 📈	%7,1 📈
Valentziako Erk.	%1,5 📈	%0,2 📈

Turisten erdia baino gehiago **merkatu nazionalekoak** dira (%55). Hala ere, **nazioarteko merkatuaren** presentzia txikiagoa izan arren, 2024ko epe berarekin alderatuta, **hazkunde handiagoa izan du (+%6,3)**, eta **merkatu nazionalak ere hazkunde positiboa izan du (+%3)**.

10 merkatu igorle nagusien artean lau nazioarteko merkatu daude: Frantzia, Erresuma Batua, Alemania eta Estatu Batuak. Jaitsierak soilik Frantziak eta Kataluniak izan dituzte.

Sailkapenean buru dira, hurrenkera honetan: **Madrilgo Erkidegoa (%13), barne-merkatua (Euskadi) (%11,6), Frantzia (%9,7), Katalunia (%7,4) eta Erresuma Batua (%4,6)**.

2025EKO APIRILA



PLAZAKAKO OKUPAZIO-MAILA

(%) * (VS. 2024)

%38,2

%41,9

ESKEINITAKO PLAZAK EGUNEKO

62.118

(+ %4,8)

Hotelak	%4,2	📈	Vitoria-Gasteiz	%0,5	📈
Nekazalurtismoa	%3	📉	Bilbao	%11,1	📈
Kanpinak	%5,2	📈	Donostia	%0,1	📉
Apartamentu turistikoak	%17,9	📈	Euskal Kostaldea	%0,2	📉
Aterpebe turistikoak	%1,6	📈	Mendi eta haranak	%2,7	📈
			Arabako Errioxa	%2,6	📈

2025eko apirilean **egunekeo +%4,8 plaza gehiago eskaini** dira (62.118), 2024ko apirilarekin alderatuta. **Ostatu-eskari adierazle guztiak igo egin dira: sarrerak +9,6 (413.629), gaualdiak +12,3 (868.277) eta plazen okupazio-maila +9,7 (41,90)**.

Ostatu-tipologiei dagokienez, **landa-ostatuak bakarrik eskaintzen dituzte plaza gutxiago egunekeo (-%3)**, eta **kanpinek plaza okupazioa jaitsi dute (-%2,6)**.

Apirilean helmuga guztiek emaitza positiboak lortu dituzte, 2024ko apirilarekin alderatuta.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2025EKO APIRILA

10 MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2025EKO APIRILA


JATORRIAK	SARRERAK 2025 vs 2024	GAUALDIAK. 2025 vs 2024
Madrilgo Erk.	%10,6 📈	%21,5 📈
Frantzia	%4,3 📈	%5,2 📈
Euskadi	%1,8 📈	%0,8 📉
Katalunia	%32,5 📈	%42,3 📈
Errasuma Batua	%36,3 📈	%37,5 📈
Estatu Batuak	%7,1 📈	%11,9 📈
Alemania	%17,1 📈	%22 📈
Gaztela eta Leon	%6,5 📉	%4 📉
Valentziako Erk.	%7,6 📈	%6,8 📈
Italia	%33 📈	%26,9 📈

Merkatu nazionalak kuota apur bat handiagoa du nazioarteko merkatuaren aldean, %50,5 eta %49,5, hurrenez hurren. **Bi merkatuek gora** egin dute 2024ko apirilarekin alderatuta; merkatu nazionalak **+%8,6** eta, gehiago, nazioarteko merkatuak **+%10,7**.

Apirileko 10 merkatu igorle nagusien artean gehienek hazkundeak izan dituzte. Soilik **barne-merkatuak** (Euskadi) (-%0,8 gaualdietan) eta **Gaztela eta Leonek** (-%6,5 sarreretan eta -%4 gaualdietan) **jaitsierak** erregistratu dituzte. Apirileko hilabete honetan, 10 merkatu nagusien artean, **5 nazioarteko merkatu** daude hurrenkera honetan: **Frantzia, Erresuma Batua, Estatu Batuak, Alemania eta Italia**.

Sailkapenean buru dira, hurrenkera honetan: **Madrilgo Erkidegoa (%11,9), Frantzia (%10,4), barne-merkatua (Euskadi) (%9,6), Katalunia (%7,8) eta Erresuma Batua (%4,9)**.

2025EKO MAIATZA



PLAZAKAKO OKUPAZIO-MAILA

(%) * (VS. 2024)

%44,9

%46,1

ESKEINITAKO PLAZAK EGUNEKO

62.511

(+ %4)

Hotelak	%3,6	📈	Vitoria-Gasteiz	%0,5	📈
Nekazalurtismoa	%1,9	📉	Bilbao	%8,2	📈
Kanpinak	%1,9	📈	Donostia	%0,1	📈
Apartamentu turistikoak	%17,7	📈	Euskal Kostaldea	%0,2	📉
Aterpebe turistikoak	%3,5	📈	Mendi eta haranak	%3,4	📈
			Arabako Errioxa	%3	📈

Maiatzean, igoerak erregistratu dira **egunekeo eskaintako plazetan +4** (62.511), 2024ko maiatzarekin alderatuta, eta baita **eskari-adierazle guztietan ere: sarrerak +7,1** (491.753), gaualdiak +7,7 (986.978) eta **plazen okupazio-maila +2,7** (%46,10).

Otsailean, **plaza-eskaintza handitu da orokorrean turismo-ostatuetan, landa-ostatuetan izan ezik (-%1,9)**. **Ostatu-tipologia gehienek eskari-adierazle positiboak lortu dituzte**. Bakarrik **apartamentu turistikoak** (-%4) eta **kanpinek** (-%7) **jaitsi dute plazen okupazioa**. **Kanpinek, sarreretan ere jaitsiera** izan dute (-%3,3).

Hilabete honetan, helmuga guztiek egunekeo plaza gehiago eskaini dituzte, Euskal Kostaldeak izan ezik, %0,2ko jaitsierarekin. Vitoria-Gasteizek sarreretan jaitsiera izan du (-%7,8), baita Donostiak ere sarreretan (-%1,7), gaualdietan (-%2,2), eta plazen okupazioan (-%2,4).

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2025EKO MAIATZA

10 MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2025EKO MAIATZA

JATORRIAK	SARRERAK 2025 vs 2024	GAUALDIAK. 2025 vs 2024
Madrilgo Erk.	%7,8 📈	%9,1 📈
Euskadi	%15,3 📈	%11,1 📈
Frantzia	%11,4 📉	%12,7 📉
Erresuma Batua	%71,8 📈	%57,8 📈
Katalunia	%16,7 📉	%8,9 📉
Estatu Batuak	%3,6 📈	%2 📈
Alemania	%3 📈	%7,8 📈
Gaztela eta Leon	%12,4 📈	%7,8 📈
Herbehereak	%2,7 📉	%3,9 📉
Andaluzia	%11,2 📈	%12,2 📈

Nazioarteko merkatuak merkatu nazionalak baino kuota handiagoa du, %55 eta %45, hurrenez hurren. 2025eko hilabete honetan, **bi merkatuek gora** egin dute, nazioartekoak **+%8** eta **nazionalak +%6**, 2024ko maiatzarekin alderatuta.

10 merkatu igorle nagusien artean, **nazioarteko 5 merkatu** daude; **Frantzia, Erresuma Batua, Estatu Batuak, Alemania eta Herbehereak**. **1a merkatu guztiek urte arteko hazkundeak** izan dituzte sarreretan eta gaualdietan, **Frantzia, Katalunia eta Herbehereak izan ezik**.

Sailkapenean buru dira, hurrenkera honetan: **Madrilgo Erkidegoa (%10,9), barne-merkatua (Euskadi) (%9,2), Frantzia (%9,1), Erresuma Batua (%7,8) eta Katalunia (%6,6)**.